

KLIMA ALDAKETA



Lurra orain dela 4.500 milioi urte sortu zen, eta ordutik klima etengabe aldatu da. Hala ere, azkenaldian, klima-aldaketak inoiz baino erritmo biziagoan ari dira gertatzen, eta fenomeno hori larritzeko modukoa da; izan ere, kliman aldaketak izan diren guztietan, aldaketa horrek ondorio zuzena izan du planetan.

Nazioarteko komunitate zientifikoak aspaldi ohartarazi zuen klima-aldaketaren eta arazo horri lotutako arriskuen inguruan. Gainera, zientzialari horien ustez, oraingoz eragin horien zati txiki bat bakarrik nabaritzen dugu; izan ere, atmosferaren eta klimari lotutako prozesuen erreakzio oso mantsoa da gizakien jarduerarekin alderatuta. Beraz, neurri zuzentzaileak garaiz onartzen ez badira klima-aldaketa ezingo dela kontrolatu ondoriozta dezakegu.

- Klima aldaketaren ondorio nagusienetako bat temperaturaren igoera da. Euskadiko batez besteko temperatura 2000-2014 aldirako $0,8^{\circ}\text{C}$ altuagoa izan da 1971-2000 aldiarekin konparatuta.

2015eko abenduan Parisen lehen aldiz munduko estatu guztiak barne hartuko dituen hitzarmena adostu dute Parisen egindako **COP21 klimari buruzko goi-bileran**. Baina zientzialari, gobernu eta Gobernuz Kanpoko Erakunde batzuen ustez, adostutakoa lausoegia da, ordea. Proposatutako mekanismoak ez dira nahikoa izango ezarritako helburuak betetzeko.

Temperaturari dagokionean helburu handia ezarri zuten: Lurreko temperaturaren igoera, industrializazioaren aurrekoarekin alderatuta, 2°C -tik “ondo behera” mantentzea eta ahalegina egitea $1,5^{\circ}\text{C}$ -ko muga ez gainditzeko.

- Euskal Autonomi Erkidegoko sare meteorologikoa 90 estazioz osatutako dago.

Ondoren 1980 urtea geroztik Donostiako eta Legazpiko estazioetan jasotako datuak aurkezten dizkizuegu (eranskina 1). Baita ere, Euskadiko meteorologiari buruzko hainbat datu esanguratsu (eranskina 2)



KLIMA ALDAKETA

Burutu itzazue binaka jarraian proposatutako jarduerak:

- 1- Egin ezazue estazio bakoitzari dagokion grafikoa jasotako emaitzen arabera.
- 2- Konpara itzazue biak.
- 3- Zer ondorio atera dituzue konparaketa egin eta gero?.
- 4- "2050erako klima- aldaketaren Euskadiko Estrategia" dokumentuaren harira (eranskina 3), azter itzazue bertan proposatzen diren lan-lerroak. Zer egiten ari da Azpeitiko udala esparru horietan? Zer neurri eta programa jarri ditu abian? (eranskina 4).

| AZPEITIKO UDALAK HARTUTAKO NEURRIAK |
|-------------------------------------|
| |
| |
| |
| |
| |
| |
| |

5- Nola baloratuko zenukete burututakoa? (eskas, nahiko...)

.....

.....

.....

6- Zer gehiago egin daiteke zuen ustez udalerrian, ikastetxean, zuen bizitzan?

.....

.....

.....

